



# GAITASUN HUMANISTIKO/SOZIALAK SUSTATZEA ENPRESEN IRAUNKORTASUNEAN



## ZERGATIK?

- Enpresen iraunkortasunarekin lotutako gaitasun pertsonalak/profesionalak garatzeko beharrari buruzko nazioarteko azterlanak, hiru trantsizioek zehazten dituzten erronken aurrean.
- Pertsonen enplegagarritasuna hobetzeari erantzutea.
- Ulertzeko, galdetzeko eta pentsamendu kritikoa izateko gaitasunak indartzea, etorkizuneko erronkei erantzun berriak emateko eta aurrerapen teknologikoei balioa emateko.

## NORK?

Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusiak



## ZERTARAKO?

Titulazio humanistiko/sozialen eremuan gaitasun pertsonalak/profesionalak indartzea, etorkizunean Gipuzkoako enpresetan enplegurako beharko diren gaitasunak jorratzeko.

## NOLA?

- Gaitasun pertsonal/profesional humanistiko/sozialak txertatzearen onura pertsonalak, ekonomikoak eta lurraldekoak kodefinitzea (ezagutza-eragileak, enpresa- eta gizarte-eragileak).
- Ezagutzaren eragileak eremu horretan txertatzea, gaitasunak eta ahalmenak identifikatzeko.
- Enpresa eta gizarte-eragileak txertatzea, enpresetan esperimendazioak garatzeko.
- Beste lurralde batzuetako jardunbide egokiak identifikatzea
- Gizarte-sentsibilizazioa (taldeka sailkatuta: familiak, eskolak, enpresak, gizartea).
- Arlo honetan esanguratsuak diren eragileekin ko-sorkuntza.
- Genero-ikuspegia txertatzea ekimenaren diseinuan eta garapenean.



## NON?

Lurraldekoa

## NOIZ?

2022/10/10



200.000€